

## **HIRI EREMUAK BERRESKURATZEKO LAGUNTZEN 2021EKO DEIALDIAREN OINARRIAK**

**(Hitzarmena, NUKFren, Estalvis i Pensions de Barcelona “la Caixa” fundazioaren  
eta Nafarroako Kutxa fundazioaren artekoa)**

### **1- DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdi honen xedea da hiri eremu publikoak eta zerbitzu publikoak lehengoratzeko proiektuetan erabilitako material suntsikorra finantzatzea, baldin eta proiektuak deialdian parte hartu eta hautatuak badira ondoko oinarriari jarraituz.

### **2.- DEIALDIAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

1.-Toki entitateen titulartasunekoak diren eta 2021ean gauzatu diren proiektuek parte har dezakete deialdi honetan, baldin eta proiektuak sustatzen dituzten toki entitate horiek NUKFri atxikita badaude eta 2.000 biztanletik beherakoak badira eta ondoko deialdien arabera kontratatutakoek parte hartzen badute proiektuetan:

*52E/2021 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdi honen gastua baimendu eta deialdiaren oinarri arautzaileak aldatzen baitira: “Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzak interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik”. (2021eko 47. NAOa, martxoaren 1ekoa).*

*81E/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 25ekoa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, zeinaren bidez deialdi bat onesten baita, 2021. urterako, toki entitateei dirulaguntzak emateko enplegu sozial babestuko proiektuak gara ditzaten. DDBN identifikazioa: 550777. (2021eko 64. NAOa, martxoaren 22koa).*

*4328E/2020 EBAZPENA, abenduaren 4koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez gastua baimentzen baita Nafarroako toki entitateei zuzenduriko dirulaguntzen deialdirako, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak kontrata ditzaten, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko. (296. NAOa, 2020ko abenduaren 22koa).*

*1878E/2020 EBAZPENA, ekainaren 19koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez dirulaguntza deialdi bat onesten baita, Nafarroako toki entitateei zuzendurik, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak kontrata ditzaten, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko. (157. NAOa, 2020ko uztailaren 17koa).*

2.- Entitatearen erabilera edo zerbitzu publikoko espazioetan esku hartzea aurreikusten duten proiektuak baino ez dira onartuko.

3.- Entitate bakoitzak proiektu bakarra aurkezten ahal du, eta horren barnean ez da hiri-altzaririk sartuko, ezta makinaren edo ibilgetuaren beste elementu batzuen erosketa edo alokairua ere. 5. atalean zehazten dira zer gastu elementu finantzatzen ahal diren.

4.- Entitate onuradunek, zer elkarteri dauden atxikirik langileen kontratazioaz arduratzeko, horien bidez eskatuko dituzte laguntzak, baldin eta entitate onuradunek berek egiten badituzte proiektuak eta materialen gastuak (hau da, haiek badira fakturen titularrak).

### **3.- PROIEKTUAK AURKEZTEA**

1.- NUKFn aurkeztuko dira proiektuak, horretarako dagoen inprimakian zehaztutako prozedura betez eta ondoko dokumentazioa erantsiz:

- Proiektuaren titularra den toki entitatea.
- Jarduketa deskribatzen duen memoria eta, hala badagokio, jarduketa eremuaren euskarri grafikoa.
- Jarduketaren helburuak eta deialdiaren helburuekin duten lotura.
- Proiektuaren aurrekontua, eskulana kanpo dagoela, eta erabilitako material guztien eta haien kostuaren zerrenda zehatza barne.
- Proiektua gauzatzeko deialdiaren babesean kontratatutako pertsona kopurua, kontratazio-aldia eta lanaldia.
- Proiektuarekin eskuratu nahi diren ingurumen arloko helburuak, ondare arlokoak edo kultura arlokoak.
- Proiektuarekin eskuratzea aurreikusi diren gizarteratze eta laneratze arloko helburuak.
- Egiaztagiri bat, dioena 2. oinarrian zehaztutako deialdien barnean kontratatu direla proiektuan aritzen diren langile gehienak.
- Entitate eskatzaileak beharrezkotzat jotzen duen bestelako dokumentazioa, edo deialdiaren ebaluazio batzordeak eskatzen duena.

### **4.- AURKEZTEKO EPEA**

Eskaerak aurkezteko epea **2022ko urtarrilaren 15ean** bukatuko da.

### **5. EKARPEN EKONOMIKOA**

Hautatutako proiektuek ekarpen ekonomiko bat jasoko dute, NUKFren eta La Caixa fundazioaren eta Nafarroako Kutxa fundazioaren artean izenpeturiko hitzarmenaren kargura, proiektuko materialen kostu guztia finantzatzeko, zuzkidura erabilgarriak ahalbidetzen duen inbertsioaren portzentajetik. Gehieneko zenbateko bat ezartzen da,

**2.500 eurokoa** proiektu bakoitzeko, ekarpenaren portzentajea ahalik eta handiena izan dadin. Gehieneko zenbateko hori edo eskatutakoa (kopurua txikiagoa balitz), beharrezko proportzioan murriztuko dira baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak finantzatu ahal izateko.

Funtsen esleipena egin ondoren soberakina sortuko balitz, aipatutako 2.500 euroko gehieneko zenbatekoari eta eskatutako zenbatekoari (kopuru txikiagoa balitz) gehitu egingen zaio esleitutako guztizkoaren gaineko proportzioan, eta deialdiaren zuzkiduraren zenbateko guztia kontsumitu arte kopuruak handituz.

Finantza daitekeen zenbatekoa zehazteko, materialen gastutzat hartuko dira kontratatutakoek lanetan erabilitakoak, hiri-altzariak kanpo, baina landatzeko landareak kontzeptu horren barnean daudela. Makinen alokairua, halaber, horren kanpo egonen da, eta, oro har, kanpoko eskulana eskatzen duten lan zehatzak, hala nola, konponketa elektrikoak, iturgintza, hormigoiaren hornidura, eta, eskuarki, kontratatutakoek erabiliko dituzten materialekin lotuta ez dauden gastu guztiak. Material ez-suntsikorren gastuak ere horren kanpo daude, hala nola material inbentariagarria eta langileen ekipamendua (jantzia, zapatak eta abar).

## **6.- ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA**

NUKFK egingen du ekarpena, ordainketa bakar batean, jarduketa bukatu ondoren, gastuen ziurtagiriak aurkeztu ondoren eta proiektuko materialen gastua ordaindu ondoren.

## **7.- LAGUNTZEN EBAZPENA**

Batzorde Betearazleak deialdi hau ebazteko, ebaluazio batzorde bat eratuko da NUKFren barnean. Batzorde hori NUKFKo bi ordezkari eta bi teknikari osatuko dute zeinak NUKFKo Batzorde Betearazleak izendatuko baititu.

Ebaluazio batzordeak aurkeztutako proiektuak aztertu eta baloratuko ditu eta, ondoren, hautatu.

Ebaluazio batzordeak, bere eginkizunak betetzeko asmoz, informazio gehigarria bil dezake parte hartzen duten entitateetatik.

Deialdiaren baldintzak betetzen dituzten proiektu guztiak kontuan hartuko dira. Finantzatzeko zenbatekoa kuantifikatu ondoren, aplikatu beharreko dirulaguntzaren portzentajea zehaztuko da, dagoen zuzkiduraren arabera.

Deialdia ebazteko erabakia deialdian barne hartutako entitate guztiek egindako gastuaren justifikazioa jaso ondoren, hots, finantzatzeko zenbatekoaren portzentajea jakiten denean hartuko da.

## **8.- EKARPENAREN ONURADUN DIREN ENTITATEEN BETEBEHARRAK**

Entitate onuradunek ikusten den toki batean eman behar dute jarduketarako ekarpenaren berri, deialdiaren sustatzaileek horretarako adierazten dituzten baliabideak erabiliz.